

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak jendaurrean jarriko ditu 2017-2027ko Nafarroako Hondakin Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa

*Irailaren 2an NAOn argitaratuko den Foru Gobernuko erabaki batean adierazten da*

Asteazkena, 2016.eko abuztuak 24

Foru Gobernuak gaurko bilkuran erabaki bat hartu du eta, haren bidez, 2017-2027ko Nafarroako Hondakin Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jarriko dira, irailaren 2an NAOn (Nafarroako Aldizkari Ofiziala) argitaratuko dena.

Aurkeztuko diren alegazioak baloratu ondoren, Gobernuak urtea amaitu aurretik behin-behineko plana onartuko du eta ingurumen-adierazpen estrategikoa egingo.

Nafarroako Gobernurako [Programa Akordio](#)ak Nafarroarako Hondakin Plan berri bat egiteko konpromisoa jasotzen du. Gainera, gizarte zibilaren eta inplikaturako eragileen partaidetza-prozesu bat egiteko konpromisoa zehazten du, frakzio bakoitza tratatzeko teknika hoberenak finkatzen saiatuz; hori guztia, ikuspegi ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa aintzat hartuz eta ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatuz. Helburu hori betetzeko, Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko Departamentuak planaren zirriborroa eta partaidetza-prozesua prestatu ditu, eta haietan erakundeek nahiz herritarrek lagundu dute.

Helburu nagusia ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarritutako plan bat lortzea da, Nafarroak klima-aldaketari emandako erantzunaren barnean dagoena, eta hondakinak kudeatzeko egungo esparrua funtsean hobetu nahi du; horrez gain, ekonomia-eredu berri baterako bidea proposatzen du, eta hondakinei buruzko mentalitatea aldatzea bilatzen haietan baliabide modura pentsatuz.

Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizaldek Gobernuko Bileraren ondoren emandako prentsaurrekoan adierazi duenez, helburua da "Nafarroa hondakinen prebentzioaren buru jartzea, hau da, murrizketan", eta,aldi berean, "berrerabilera eta birziklapena ahalik eta gehien sustatzea, lehengaiak,



Hondakinen tratamendua.

energia, baliabideak eta abar alferrik gal ez daitezen".

Kontseilariaren esanetan, lortu nahi da, halaber, "hurbiltasuneko enplegu berdea sortzea, birziklapenak isurketen antzeko helburuek baino 10 aldiz enplegu gehiago sortzen baitu, nazioarteko hainbat azterketek erakusten dutenez". Hala, 350 lanpostu baino gehiago sor daitezke, gaikako bilketa, berrerabilerako prestakuntza eta birziklapenaren artean.

### **2.000 ekarpen baino gehiago 575 pertsonak parte hartu duten prozesu batean**

Otsail eta ekain artean partaidetza publikoko prozesu bizi bat egin da eta, hari esker, zirriborroari 2.000 ekarpen baino gehiago egin zaizkio, bileren eta tailerren bidez edo, zuzenean, Nafarroako Gobernuako webguneko [Gardentasun Atariari](#).

Zehazki, prozesuan 575 pertsonak parte hartu dute honako hauen ordezkari izanez: 65 toki-erakunde, 37 talde eta erakunde, 15 mankomunitate, 27 enpresa eta 40 partikular.

Aipatu behar da prozesuak ez duela gairik kanpoan utzi, polemikoenak ere; izan ere, datuak, ereduak eta esperientziak aldeko eta kontrako aldeekin aztertu dira, haien indarguneak eta ahuldadeak aztertu dira, ahalik eta adostasun handiena eraikitzeko asmotan.

Horretarako, eskualde-mailako 22 bilera egin dira eta gaiaren araberako beste 6 partaidetza-maila askotan lau hilabetez.

### **Jendaurrean jartzea**

Jendaurrean jartzeko epea (45 egun) Gobernuaren erabakia NAOn argitaratzen denean (irailaren 2 rako iragarrita dago) hasiko da. Dokumentazioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuan izango da eskuragarri, bai eta Gardentasunaren Atarian ere.

Egun horretan bertan prozesuan parte hartutako eragile guztientzako aurkezpen-jardunaldi bat egingo da, jendaurrean jarritako dokumentuen xehetasun guztiak ezagutu daitezten. Hedabideei eta oro har jendeari irekitako bilera horretan, ekarpenei emandako bidearen berri emango da.

Zehazki, bi dokumentu jarriko dira jendaurrean:

-2017-2027ko Nafarroako Hondakin Plana, eta haren barnean sartzten da aldi berean: prebentzioko nahiz kudeaketako programa barneratzen duen hondakinen plan integratua, partaidetza-prozesuari buruzko txostena eta dokumentu laburpen exekutiboa.

- Ingurumen-azterketa estrategikoa.

2015-2025erako aurreikusitako hasierako helburua prozesu guztiaren zabalkundeak gainditu egin du, eta egoera horrek planaren egungo esparrua 2017-2027 epeari egokitzea eragin du.